



Hiztegitxo

Hobeto irakurtzen laguntzeko



abegi harrera	«Horregatik, denbora gupidagabea izan arren, oroitzapen batzuk betiko geratzen dira presente, abegi ona egiten diegulako memoriarekin.»	(30)
agitu gertatu, jazo	«...ateratzen zitzaizkidan boligrafoaren puntatik bertso-lerroak eta ahapaldiak barnean neukan korapilo mordoilatua albainu bakar eta fin agituta .»	(60)
ahapaldi estrofa, poemetako zatia	«...ateratzen zitzaizkidan boligrafoaren puntatik bertso-lerroak eta ahapaldiak barnean neukan korapilo mordoilatua albainu bakar eta fin agituta .»	(60)
ahuspez aurrez	«Zerbaitekin estropezu egin, eta ahuspez erori nintzen ate ondoraino.»	(86)
aida behiei mugitzeko esaten zaiena	«Baserritarren batek ahoskatutako " aida! " sanoenari ere arao-hitz iritziko genion. Eta non eta, Alaienek-eta hantxe ipini zituzten dendak...»	(33)
akituta nekatuta, unatuta	«Bizitzako teke-mekeez akituta zegoen, heriotzaren egarriz.»	(9)
akuri kuia	«Tira, goazen kaiola honetatik. Horixe da etxe hau: kaiola bat, barruan akuri gaixo bi harrapatuta geratu direnekoa...»	(56)
albainu hari hauskorra	«...ateratzen zitzaizkidan boligrafoaren puntatik bertso-lerroak eta ahapaldiak barnean neukan korapilo mordoilatua albainu bakar eta fin agituta .»	(60)
albait arinen lehenbailehen, ahalik eta arinen	«Bila joango nintzen albait arinen . Berreskuratu egingo nuen kosta ahala kosta.»	(27)
aldaka kadera, mehaka, gerri aldea	«Egun batean, txirrist egin zuen kalean eta aldaka hautsi zitzaion.»	(9)
aldarte umorea, jarrera	«Kai gaineko irrintzi zoliek lagundu zioten gure aldarteari hoberantz egiten.»	(57)
alderrai ibiltari, noraezean	«...nire bihotza kale amaigabea alderrai dabilen haur ttiki bat da.»	(59)
aldikada denboraldia	«... aldikada hura ez zen hain txarra izan, alderantziz baizik...»	(59)
alta hala ere	«...hitz eginez ematen zituen orduak eta orduak. Alta , espero zuen azken ume hura ere ez zen jaio.»	(55)
altzo kolkoa	« Altzoan zeukan lehentxeago lorategian guk ikusitako txakur albinoaren burua...»	(51)
amilotxa txoritxo (buru beltz-papar hori)	« Amilotxen kantua eta inguruko ganaduen zintzarri-hotsa besterik ez zen entzuten han.»	(33)
anabasa nahastea, saski-naskia	«Bat-batez ulertu nuen zein zen anabasa hartan nuen zeregina.»	(82)
antxintxiketan arineketan, korrika	« Antxintxiketan jaitsi nintzen kalerantz. Arnasoska, izulaborriak jota, galapa zoroan.»	(62)
apa-apan ttipi-ttapa, ibiliz	«Guk txikitari ikusten genituen moilan, elkarri usnaka, apa-apan , euren barkuko gizonei segika tabernaz taberna.»	(67)
arao-hitz madarikazioa, hitz itsusia	«Baserritarren batek ahoskatutako " aida! " sanoenari ere arao-hitz iritziko genion. Eta non eta, Alaienek-eta hantxe ipini zituzten dendak...»	(34)
arestian apur bat lehenago, lehentxeago	«Baina haizearen norabidea bat-batean aldatua zelako-edo ez nuen nik ezer aditu arestian .»	(25)
argizagi izarra, astroa	« Argizagien gidaria dela uste du, Jainkoak zigortutako aingeru matxinatua.»	(82)
arrakalatua pitzatua, kraskatua	«Liluratu egiten ninduten harkaitzeko horma umelen erpinetan pausaturiko kalatxorien grau-grau arrakalatuek .»	(18)
arrats-behera iluntze partea	« Arrats beheran iritsi ginen itsaslabarrera.»	(34)
atalase ataria	« Atalasea zeharkatu genuen. Lipar batzuetan itxi-usainaz izan ezik ez ginen ezertaz kargutu.»	(36)



atoan segituan, berehala	«Isildu egin zen bat-batean, zerbait esan ala ez pentsatzen. Atoan , hangoaz eta hemengoaz segitu zuen, zeruaz eta lurraz...»	(70)
aurri etxe baten hondakinak	«Nola zitekeen han bizitzea, mundutik aparte, hauts eta aurri artean?»	(55)
bako gabeko	«...tinko-tinko aurpegi bako andreaki begira ezerosotasuna ezkutatzeko ahaleginetan.»	(52)
barren baina	«Gauzak zehatz-mehatz esaten, barren , ez zuen asmatzen...»	(23)
begiztu sumatu, urrundik ikusi	«Eta gero, uda zoragarri hartan begizten hasitako gure mundu txikia hazten eta hazten ikusiko genuen, elkarrekin, sekulako eta betiko.»	(85)
beilegi horia	«...sostentxo bat atera zuen bere tokadero kaxoitik (...). Beilegia zen eta lore txiki bat zuen titi-zorro bien artean.»	(22)
bekoz beko aurrez aurre, buruz buru	« Bekoz beko neukan gizon morrosko berbalapikoa...»	(63)
benazko egiazkoa, benetakoa	«Errespetu hain benazkoa sortzen zidan, non ez nintzen gai gezurrik asmatzeko.»	(52)
berna zangoa	«Sasiekin egindako urrakada ederrak nituen bernetan ...»	(27)
beste errota bateko ogia beste kontu bat, oso desberdina	«Onartu, hori beste errota bateko ogia da...»	(80)
bihotz-koilara urdailaren goiko alde	«Nerabezaroko krisia. Aitak beste modu batera deitzen zion horri: bihotz-koilarako mina.»	(18)
bikor zaldarra, azaleko garaua	«Azala bikor urtsuz, haragi errezko zorrotzoz josita zuen: andre hura bizirik usteltzen zegoen.»	(84)
brastakoan bat-batean, kolpetik	«—Eta zu zer dela-eta ibili zara Solaiz Enea inguruetan —bota zidan brastakoan .»	(42)
bristada isla, tximistada	«Gero, moilako eskaileretan egon ginen berbetan, zapatak kenduta, uretan islaturiko farolen zilarrezko bristadak oinekin apurtzen.»	(31)
butxatu trabatu, ataskatu	«Eta mintzoa butxatuta , ez baikinen kapaz esaldi bakar bat baizik esateko.»	(47)
deslai abandonatua / lotu gabea	«...estudiatzen niharduenean santu burusoilen aurpegi zurbilak eta santen begirada deslaiak , abadeen sotanen zirri-zarrak, ur-ponte higatuak...»	(10)
diosal egin agurtu, saludoa egin	«...esnatu bezain agudo, portura joaten ziren bakoitza bere aitaren barku ondora diosal egiteko ...»	(17)
dirdaitu distiratsua	«Dolores zegoen etzanda, konortea galtuta. Eta ilunpean, bi begi dirdaitu , neuri begira.»	(62)
dirdaitu distiratsua, dizdizaria	«Dolores eta begi dirdaitu haiek...»	(71)
durduzaturik asalaturik, gogoia nahasita	«...iruditzen zaidala iraganetik natorrela tunel baten barrutik bidaia zaila eginda legez eta, azkenik (...) durduzaturik geratu naizela...»	(7)
egoskor tematia, burugogorra	«Laurogeita hiru urte egoskor zituen.»	(40)
eldarnioka sukar-ametsetan, delirioan	«Dolores eldarnioka zegoen...»	(81)
enpaguarri betegarria, nazkagarria	«Bestelako kirats enpaguarria zen, substantzia nahastuen usain ustela...»	(50)
erdietsi lortu, eskuratu, atzeman	«...oreinaren bihotz xaloa eta panteraren sexu gartsua erdietsi nahi zituen hamasei urteko neskatxa bat.»	(30)
erdu etorri, hurbildu	«— Erdur , gazteok. Erdur beldurrik gabe.»	(50)



erretilu bandeja	« Erretiluan jarritako pasteltxo egin berriekin legez jazotzen da.»	(30)
estreinakoz lehenengoz, lehen aldiz	«Alain ikusi nuen. Ez estreinakoz , institutuan baitzebilen maila bat gorago.»	(13)
estu hartu presionatu	«Nor nintzen jakin gura zuen nahitaez. Estu hartu ninduen.»	(65)
etzangu ohantzea, etzatekoa	«...eta, etzanguan , kuskurik baten barruan bezala, Alain biluzik, lo antzean.»	(83)
ezaupidea egin elkar ezagutu	«Neskatxa piano-kontzertua ematen ari zela egin omen zuten ezaupidea lagun batzuen etxean.»	(41)
ezbai zalantza, duda	«Horretan ez zen ezbairik .»	(42)
ezein inongo, batek ere	«Eta ez zegoen heriotza onik; ezein heriotzak ez du izen hori merezi.»	(11)
ezta hurrik ere inola ere, ezta pentsatu ere	«Banekien zer zen norbait hilda egotea baina hori ez zen, ezta hurrik ere , heriotzaren benetako muina...»	(11)
galapa zoro korrikaldi eroa	«Antxintxiketan jaitzi nintzen kalerantz. Arnasoska, izu-laborriak jota, galapa zoroan .»	(62)
gandu lausoa, laino mehea	«...Garraitzeta gandu mehetan bilduta ageri zen, zeta-paperean legez.»	(49)
gangar eroa, harroa	«Gero hanka egiten nuen saltzaileen oihu gangarra belarrietan sartuta...»	(18)
gangartu harrotu	«Hego-hotsa sumatu nuen, hegaldatu nahi eta ezin duen hegaziarena bezalakoa. Gortinak ziren, haizeak gangartuta .»	(78)
giltzarrapo sarraila mugikorra, kandadua	«Alferrekoa sarrera galarazteko, giltzarraporik gabe jarrita baitzegoen bi barroteren inguruan, Jesus batean kentzeko legez.»	(26)
gogait egin aspertu, gogaitu	«...eguzkiak bero-bero jartzen zituen arrokak eta gozamina zen hantxe egotea gogait egin arte.»	(19)
goizalba egunsentia	«Suhiltzaileak heldu zirenerako goizalba zen eta etxea osoro kiskalita zegoen.»	(87)
gomuta oroipena	«Amamaz dudana gomuta , beraz, gazi-geza da, hil nahirik bizi baitzen...»	(10)
gorozki kaka	«...usteldura zaharren hatsa, gorozki bigunen sunda...»	(78)
gurbitz zuhaixa mota bat (madroño)	« Gurbitz baten ondoan topa genuen, hesitik hurbil, azalak zimur-zimur euri-zaparradatan egon izanagatik.»	(35)
gurrunga zurrunga	«Otoz otoan, gurrunga bat, marrua, xaxatua izan den animalia murruskaren moduko orro lazgarria entzun genuen.»	(37)
harpa jo iseka egin, adarra jo	«—Ezin du ezer entzun. Harpa jotzen ari da. Barregura eman zigun ateraldiak.»	(56)
hilgura hiltzeko gogoa	«Hamasei urte nituela, gure amama hilguraz bizi zen.»	(9)
hitz-aspertua egin berbalditxoa, hizketalditxoa	«Hurrengo batean ere joango natzaizu bisitan eta egingo dugu hitz-asperturen bat.»	(70)
huntzorri landare igokaria, huntza	«Murruren gainaldean, huntzorri sarriak aterpe antzekoa eratuta zeukan.»	(26)
hurtean agian, akaso	«Umeok herritik urrundu ez gintezen asmatutako ipuina izango zen, hurtean .»	(33)
hurrendu hurbildu, hurreratu	«Luze iritzita, hurrendu egin nintzen, dudatan bainengoen...»	(62)



ilaurtu abortatua	«Ume bat izan nahi zuten, kosta ahala kosta, baina ezin. Ilaurtuak bai, izan zituen, bata bestearen ondoren.»	(54)
ilinti egur zati suzkoa	«Suhiltzaileek aurkitu ninduten, ilinti artean.»	(87)
inarrosi astindu	«Jonasen heriotzak goitik behera inarrosi ninduen, zartailu batek bezala.»	(71)
inkesa kexa, intziria	«...amama gaixotu zenetik etengabe entzun ohi nituelako haren marrumak eta inkesak .»	(9)
intziri oinazezko kexa edo oihua	«Suzko beste irudi bat zetorren eskaileteran behera, lau-hankatan, zaunkak eta intziriak letagin artetik jaurtiz.»	(86)
iraizkin gorozkia, uzkitik kanporatutakoa	«...erromero-alkohol tanta batzuk zabaltzen genituen logelan, iraizkinen usain txarra ezabatzeko.»	(51)
irrika grina, nahi bizia	«...oroitzeko beldurrez baina irrikaz aldi berean.»	(7)
isipu ur bedeinkatua botatzeko tresna	«...abadeen sotanen zirri-zarrak, ur-ponte higatuak, isipu lurrintsuak eta arantzazko koroak etortzen zitzaizkidan burura.»	(10)
istil putzu txikia	«Pinadiko zokondo ospel batean Liapeko burdinur-iturria zegoen, goroldiotan bildurik eta oinetako istila ur-dilistaz apaindurik.»	(33)
itaundu galdetu	«Etxera iritsitakoan, azala bera urtzeko moduko lotsa lotsatuaz, itaundu nion amari...»	(22)
itsas mihilu itsas labarretako landarea	«...eta bukaeran muino bat, basa-belarrez mukuru, itsas mihiluz gehienbat.»	(18)
izu-laborri izua, panikoa	«Antxintxiketan jaitsi nintzen kalerantz. Arnasoska, izu-laborriak jota, galapa zoroan.»	(62)
izurdearen kanikak arranopola!, arraoia!	«— Izurdearen kanikak! Esan lehenago ba!.»	(65)
jesus batean atoan, arin baten	«Alferrikoa sarrera galarazteko, giltzarraporik gabe jarrita baitzegoen bi barroteren inguruan, jesus batean kentzeko legez.»	(26)
jitoan korronteen menpean (deriban)	«Besterik gabe idazten nuen askotan, esatekoa aukeratzeke, berbaroarean jitoan .»	(19)
kamaina ohantzea	«Atea ixten nengoela ikusi zaitut txispan zatozela eta ziplo jausi zara. Hona ekarri eta kamainan etzan zaitut.»	(63)
kargutu ohartu, jabetu	«Eta orduantxe kargutu nintzen, egiak, batzuetan, gezurrak baino alderdi krudelagoak izaten dituela.»	(69)
katamixar katagorria, urtxintxa	«Koadernoan nire bizitzakoak zeuden idatzita eta ez nuen gura inork aurkitzerik, txarakako katamixar gizajoak izanik ere.»	(27)
kate-begi kate maila (zati bakoitza)	«Halaxe jasota daude koaderno morean nire bizitzako kate-begi argiak eta ilunak.»	(30)
kinada estimulua	«Batzuetan gertatzen da kanpotik etortzen zaigula geure buruaz konturatzeko kinada , kanpotar batek ireki behar dizkigula begiak...»	(21)
kitzikatu zirikatu	«Usain min batek sudurzuloak kitzikatu zizkigun.»	(50)
kopalet saski-mota txikia	«Bazter batean, pikotxak eta palak zeuden, lurra batzeko kopalet pare bat, sokak...»	(62)
kosta ahala kosta edozelan ere, denaren gainetik	«Bila joango nintzen albait arinen. Berreskuratu egingo nuen kosta ahala kosta .»	(27)
kukupraka arrosa koloreko loredun landarea	«Errepide ondoan jesarri ginen, kuku-prakaz beteriko harrizko karelean.»	(37)
kusku krisalida, estalgarria	«...eta, etzanguan, kusku likatsu baten barruan bezala, Alain biluzik, lo antzean.»	(83)



lahartuta laharrez edo sasiz betea	«Etxaldea ia-ia lahartuta zegoen, sasien erasoari men eginda.»	(50)
laket gustuko	«Bakardadea laket duzu, hor behean ematen duzun denbora aintzat hartuz gero, behinik behin.»	(52)
lanaren lana lan asko egina	«Gorputz arteza, ile motza eta lanaren lanak lazturiko eskuak.»	(51)
lantzean-lantzean noizean behin	«Kamiseteta bat eta safariko galtza motzak zeuzkan jantzita. Lantzean-lantzean , ederra dela dakienaren irriño artifiziala ateratzen zitzaion.»	(30)
larderia beldurra	«Harrezkero ez zen atera, herrentasuna besteko larderia geratu zitzaiolako.»	(9)
lartxo gehiegitxo	«Pelikula lartxo ikusi dugula esan eta barre egingo dute geure kontura...»	(45)
leinargitsu noblea, aristokrata	«...harpa bat zegoen, dama leinargitsuek aisialdirako betidanik maite izan duten musika-tresna.»	(79)
limurtu sareetan harrapatu / konbentzitu	«Litekeena da ama etxeko zerbitzari bat izatea, Kaietek limurtua .»	(79)
lipar unea, instantea	«Atalasea zeharkatu genuen. Lipar batzuetan itxi-usainaz izan ezik ez ginen ezertaz kargutu.»	(36)
lirdingatsu likitsua, itsaskorra	«...bai aurpegian, bai beso eta hanketan, armiarma-sare baten ukitu lirdingatsua nabaritu nuen.»	(36)
lorratz arrastoa	«Egun hartan, bezperako euriaren lorratzak ageri ziren errepidean, han-hemenka.»	(18)
lorrindu nahastu, hondatu	«Heriotza zer den geroago ikasten dugu, maite ditugunak galtzean bizitza lorrintzen hasten zaigunean.»	(61)
maizter errentaren truke bizi dena	«Garraitzetako etxe eta lur asko eurenak izan dira eta baserritarrak izan dituzte maizter mendetan zehar.»	(40)
malmutz maltzurra	«Atso malmutzak ez zuen nahi inork aurpegia ikusterik.»	(69)
mardo mardula, lodia	«Den-dena hauts-geruza mardo baten azpian egon arren...»	(36)
marrantatsu (ahots) zakartua	«Ahots marrantatsu batek eten zuen minutu hartako tinka.»	(50)
marru orroa, animalien oihua	«...eta hara non marru amorratu bat sentitu nuen, gur-gur erdiragarria...»	(62)
marruma orroa, kexuzko oihua	«...amama gaixotu zenetik etengabe entzun ohi nituelako haren marrumak eta inkesak.»	(9)
mela-mela busti-bustirik, blai	« Mela-mela egoteak eta espioi lanetan aritzearen sentsazioak dardarizoa sartu zidaten.»	(26)
mihi kanpai barruko pieza	«Hesiaren saihetsean, txilin bat zegoen, zeharo herdoilduta eta mihia galdutakoa.»	(35)
milinga makala, indar gabea	«Barkatu. Asko aldatu naizen arren, betiko sentibera milinga naiz.»	(90)
mirabe morroia	«Sekretu bat aitortzeak sekretu horren mirabe bihurtzen gaituela erabaki nuen.»	(64)
moila kaia	«Guk txikitik ikusten genituen moilan , elkarri usnaka, apa-apan, euren barkuko gizonei segika tabernaz taberna.»	(67)
mordoilotu korapilotsu, nahaste-borristetua	«...ateratzen zitzaizkidan boligrafoaren puntatik bertso-lerroak eta ahapaldiak barnean neukan korapilo mordoilatua albainu bakar eta fin agituta.»	(60)
mukuru goraino beterik	«...eta bukaeran muino bat, basabelarrez mukuru , itsas mihiluz gehienbat.»	(18)



mutxikin hondakina	«Zigarro- mutxikin en bat utziko zuten amatatu gabe eta hara!..»	(87)
muzin egin alde batera utzi	«Eguzkiak ez zien muzin egiten jaiei.»	(43)
nabartu kolore askoz osatua	«Hormak nabartuta zeuden, karea zartaturik.»	(49)
narritatu handitua, minberatua, exzitatu	«...Alainen zakil narritatu a eta Alainen haziak utzitako distira likina antzeman nituen, tristeziakz beterik.»	(84)
nasa kaia	«Gauetan, itsas ondoan egiten zen festa, nasako zabalgunen batean.»	(30)
nini umea, haurra	«Ilaurtuak bai, izan zituen, bata bestearen ondoren. Jaio orduko galtzen zituen ninitxo gizaajoak.»	(54)
nire kautan neure kolkorako	«...ziztuan noa etxera — esaten nuen nire kautan .»	(78)
oinaze mina, sufrimendua	«Dolores, oinazez bizi eta oinazez hil zen.»	(82)
onez onetara asmo onez	«Jakina, inor ez da ibiltzen ezezagunei gonbiterik luzatzen onez onetara .»	(13)
orbandu zikatritzatu	«Liken horixkaz orbanduriko hilobi dotoreen artean, beti zen bat edo bat...»	(61)
orezta orina, azaleko orban iluna	« Orezta nabarra zuen eskumuturrean.»	(70)
ospel laiotza, toki ilun samarra	«Pinadiko zokondo ospel batean Liapeko burdinur-iturria zegoen...»	(33)
osterantzean bestela	«... osterantzean , nola bururatuko zitzaion hara behera jaistea...?»	(71)
otoz-otoan ezustean, ustekabe	« Otoz-otoan , gurrunga bat, marrua, xaxatua izan den animalia murruskaren moduko orro lazgarria entzun genuen...»	(37)
papar bularra	«...biharamunean berriz egotekotan geratu ginenean, ilargiaren antza zuen sentiera biribil batek bete zidan paparra .»	(31)
parrastan asko eta denak batera	«Gertaera haien berri jaso ahala, parrastan otutako galdera guztiak murriztuz zihoazen.»	(54)
pikardaturik orbenez beterik	«Bide nagusia goroldioz pikardaturik zegoen eta labainkorra zen.»	(60)
pindar txinparta	«Alainek bularretakoaren tiranteetako bat jaitsi zidanean, amodioaren pindarrek leher egin eta itsasgoran etorri zitzaizkigun...»	(47)
pintano zuri-beltza, pintoa	«Zokondoan, upel baten azpian, arratoi-txakur pintano bat zegoen, burua hanken artean.»	(67)
pirritan maldan behera biraka	«Halaxe, gezurraren elur-bola biribilari sakatu nion pendizean behera. Gezurra pirritan hasi zen...»	(65)
plantak egin itxurak egin	«Bakean utz genezan eskatzeko ez zigun deitu, plantak egin arren.»	(70)
potin txalupa txikia	«Zerumugan, pasean zihoan zamaontzi baten fokuak gailendu ziren, eta hurrago potinen kriseilu gorri-berdeak.»	(37)
poto egin huts egin	«Sinesgarria zen dena, baina detaile batek poto egiten zuen amamaren kontan...»	(42)
potxua neskatxa	«— Zer, potxua ? Hobeto zaude?..»	(63)
pusla larruazaleko ur batua	«Eguzkiak puslak ateratzen dizkit eta zapi hau ez da nahikoa kanpoan luzaro egoteko.»	(55)



saihets alboa, hegala	«Hesiaren saihetsean , txilin bat zegoen, zeharo herdoilduta eta mihia galdutakoa.»	(35)
salabardo arrantzaleen sareko zakua	«Ezjakinarena eginez, salabardo arrimatu nuen ea neure komenientziako arrainen bat harrapatzen nuen.»	(68)
saldoka talde handitan	«Kaioak saldoka zebiltzan, asaldatuta jaietako txapliguen erruz.»	(37)
samin garratza, mingotsa, mingarria	«Mindurak ere isurtzen nituen koaderno morera. Esaterako, amamaren erregu samina , inork entzuten ez ziola uste zuenean botatzen zuen eskaria...»	(10)
sarri(a) ugaria	«Murruaren gainaldean, huntzorri sarriak aterpe antzekoa eratuta zeukan.»	(26)
senperrenak ikusi asko sufritu	« Senperrenak ikusi genituen arrazionamentua zela eta.»	(41)
sorgor geldiarazia	«Biak elkartu zirenean itxuratu zen sorgor zegoen madarikazioa.»	(80)
talaia begiztatzeko toki garaia	«Helduen talaiatik ikusiz gero (...) oraindino galtzeke egon ohi den garai zorionsua.»	(7)
tar-tar-tar berba eta berba, hizketan	«Pipak jaten, tar-tar-tar ari ginen udako planez, ikasgai gaintitu eta gaintitubakoez...»	(30)
teke-meke gorabehera, arazoa	«Bizitzako teke-mekeez akituta zegoen, heriotzaren egarriz.»	(9)
tertzio honetan aspaldi honetan	«—Fetuak? Nahiko istorio entzuten nago tertzio honetan fetuei buruz...»	(73)
tostarteko arrantzaile soila, arrunta	«Aitarene tostarteko marinel baten emaztea pasatu zen gure kaletik arin-arinka, gaueko ordu txikitetan deika.»	(17)
tupustean ustekabeen	«Gorputzaren mezuak banituen, baina aldakuntzaren segurantzia tupustean eskuratu nuen...»	(21)
txapligu suziria, bolandera	«Kaioak saldoka zebiltzan, asaldatuta jaietako txapliguen erruz.»	(37)
txaraka zuhaiak osatutako basoa	«Koadernoan nire bizitzakoak zeuden idatzita eta ez nuen gura inork aurkitzerik, txarakako katamixar gizajoak izanik ere.»	(27)
txigortua erre-errea	«...azaldu zidaten nigandik hurbil mutil baten gorpu txigortua aurkitu zutela...»	(87)
txilinbuelta itzulipurdia	«Urdailak txilinbuelta egin zidan. Istorioaren puska solteak elkarren artean itsasten hasi ziren.»	(69)
txispan etorri arrapaladan, ahalean, ziztuan	«Atea ixten nengoela ikusi zaitut txispan zatozela eta ziplo jausi zara. Hona ekarri eta kamainan etzan zaitut.»	(63)
txitean-pitean sarri-sarri, behin eta berriro	«— Ai, ama! —nioen txitean-pitean...»	(57)
txitxirrilduta zeharo kiskalita	«Lucille ohean erreta hil zen, logelan giltzapetuta, txitxirrilduta .»	(55)
uhuri oihu luzea, ulua	« Uhuri batek erdibitu zuen gaua: Lucilleren alarauak.»	(86)
ukaldi kolpea	«Ezohiko doinua. Ez zen olatuen ukaldia harkaitzen kontra, ezta harantzagoko errepidetik zihoazen autoen burrunba.»	(25)
ur-dilista ur geldoetako landare txikia	«Pinudiko zokondo ospel batean Liapeko burdinur-iturria zegoen, goroldiotan bildurik eta oinetako istila ur-dilistaz apaindurik.»	(33)
ur-pinporta ur-anpulua	«Liburu txiki bat zeraman besapean, plastikozko azala ur-pinportaz betea.»	(14)
ur-ponte bataiatzeko harrizko ontzia	«...abadeen sotanen zirri-zarrak, ur-ponte higatuak, isipu lurrinsuak eta arantzazko koroak etortzen zitzaizkidan burura.»	(10)



urrakada harramazkada, eraitsia	«Sasiekin egindako urrakada ederrak nituen bernetan...»	(27)
xalo apala, izaera garbikoa	«...oreinaren bihotz xaloa eta panteraren sexu gartsua erdietsi nahi zituen hamasei urteko neskatxa bat.»	(30)
xerlo ile-mordoa	«...espartzuaren itxurako ile kizkurra zuela begitandu zitzaidan, xerlo koipetsuetan sorbaldetara iristen zitzaiona. Sorgin-ilea.»	(53)
zabuluka alderoka, alde batetik bestera	« Zabuluka atera ginen logelatik, oinak arrastaka zituela.»	(85)
zarrastada bihotzeko ukitua, inpresioa	«...irudikaturiko istorioak edota nolabaiteko zarrastada eragiten zidaten pasadizoak.»	(10)
zeundenentz zeuden ala ez	«Denborak esaten dizu erratuta zeundenentz .»	(29)
zeutzan etzanda zeuden	«...eta errukirik gabe juzkatzen genituen apaingarririk gabeko hilobietan zeutzanen senideak.»	(61)
zira euritarako soingainekoa	«Doloresen zirari erreparatu nion panteoien esparrurantz zihoala.»	(60)
ziria sartu engainatu	«Bidegurutzea: gizon jator hari dena kontatu, edo ziria sartu , itxurak eginez.»	(65)
zizili-zozolo txarto ahoskatuz, zizipasa	«Berba egiteko modua ere... zizili-zozolo egiten zuen eta perikitoen kutsuaz esaten zituen berba batzuk...»	(69)
zizpuruka hasperenka, suspirioka	«San Pablo Nerudari otoitz eginez eta maitasuna noiz ezagutuko lokartzen nintzen, zizpuruka ...»	(15)
ziztrin eskasa	«Hesiaren eta etxearen artean, lorategi ziztrintxo bat ageri zen...»	(26)
zoli indartsua	«Kai gaineko irrintzi zolie k lagundu zioten gure aldarteari hoberantz egiten.»	(57)
zurtuta harrituta	«Alain zurtuta geratu zen.»	(73)